



IDIAZABALGO UDALAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN SARTZEA

Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa nola sartu

Interesdunak Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikora sartu eta izapideak modu elektronikoa egin ahal dituzte www.idiazabal.eus-eko «Izapideak» izeneko atalaren bidez edo www.udalweb.eus-en bidez.

Elektronikoki identifikatzeko, pertsona fisikoek eta juridikoek hainbat sistema erabiltzen dute: sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa balioztatua edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak; zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa balioztatua edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak; edo gako hitzartuko sistemak.

Onartutako autentikazio moduak

•Pertsonak eta entitateak, beren izenean: sinadura elektronikoko edo zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa balioztatua edo kualifikatua, edo gako itunduko sistemak (pasahitz operatiboa edo kontraste datua).

•Ordezkeri profesionala: sinadura elektronikoko edo zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa balioztatua edo kualifikatua.

•Ordezkeri ez-profesionala: sinadura elektronikoko edo zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa balioztatua edo kualifikatua, edo gako itunduko sistemak (pasahitz operatiboa edo kontraste datua).

Sinadura sistemak

Sinadura elektronikoa bidez, egiaztatu egin daitezke sinatzailearen borondatea eta sinatutako agiriaren osotasuna eta aldaezintasuna.

Idiazabalgo Udalak onartutako sinadura sistemak:

- Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa kualifikatua edo balioztatua
- B@kQ sinadura elektronikoa aurreratua (2017tik aurrera)
- Pasahitz operatiboa (kentzekoa).



2. NOLA ESKURATU B@kQ

Interesdunak NAN elektronikorik, IZENPE txartelarik edo bestelako ziurtagiririk ez badauka, B@kQ eskuratzea gomentatzen da..

Definizioa

B@kQ **pertsona fisikoei zuzendutako identifikazio elektronikoko bitartekoa** da, **autentifikatzeko eta sinatzeko** prestatua. Lotuta dago Izenpe entitate ziurtatzaileak emandako ziurtagiri kualifikatu batekin, eta, bertan sartzeko, faktore hauek erabiltzen dira: erabiltzailearen identifikazioa (NAN/AIZ), pasahitz bat eta 16 posizioko koordenada joko bat (edo itsasontzi joko bat).

Zertarako balio B@kQ sinadurak?

B@kQ erabilia, honako hauekin jardun daiteke:

→**Idiazabalgo Udaleko zerbitzu elektronikoz guztiekin**, www.idiazabal.eus-eko «Izapideak» atalaren bidez edo www.udalweb.eus-en bidez (diru-laguntzak zein lizentziak, eskatzeko, ikastaroetan izena emateko, instalakuntzak erreserbatzeko...)

→**Administrazio guztiekin**. Osakidetzako mediku-txostenak kontsultatzeko, errenta-aitorpena aurkezteko, trafikoko puntu-saldoa edo isunak kontsultatzeko, oposaketan izena emateko... Erakunde bakoitzaren webguneak kontsulta daitezke.

Idiazabalgo Udalak 45 minutuko saio informatiboak emango ditu udal zerbitzu telematikoek edo beste administrazio batzuen zerbitzu telematikoekin erabilerak eskaintzen dituzten aukerak ezagutu nahi dituztenentzat.

Informazio-saio ireki horiek hasiko dira goizeko 09:00etan (Udaletxeko Areto Nagusian); ez da aurrez izena eman behar.

Equnak: Ekainaren 21, 28, Uztailaren 5, 12 eta 19 eta Irailaren 6, 13, 20 eta 27an.

Nola eskura daiteke B@kQ?

→**Modu telematikoan, IZENPEren herritar ziurtagiri edo eDNI baten bidez**. Izenpek aukera ematen dizu eskaera modu telematikoan burutzeko indarrean dagoen IZENPEren herritar ziurtagiri edo eDNI batekin sinatuz. (IZENPE: B@kQ online eskaerak ziurtagiriekin)



→**Idiazabalgo udaletxean: Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) (08:30-14:00) edo liburutegian (goizean,10:00-12:30 eta arratsaldean 16:30-18:30) eta eskaera aurkeztu.** Ez da aurretiazko hitzordurik hartu beharko.

B@KQ eskatu ahal izango dute 16 urtetik gorako pertsona fisikoek bakarrik, eta ezinbestekoa izango da posta elektronikoko helbide bat eta telefono mugikor bat adieraztea.

Horretaz gain, eskatzaileak nortasuna egiaztatu behar da, jatorrizko dokumentazio hau aurkeztuta, betiere indarrean dagoela:

—Nazionalitate espainiarreko eskatzaileak: NANA, pasaportearen edo gida baimena.

—Europar Batasuneko beste nazionalitatea duten eskatzaileak: IAZ edo, bestela, Europar Batasuneko herritarren erregistroko ziurtagiria eta sorterriko pasaportearen edo NAN, betiere indarrean dagoena.

—Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten eskatzaileak: bizileku txartela (AIZ).

→**Hirugarren pertsona bat joan daiteke** haren izenean bulego edo arreta guneeetako batera, eta honako hauek aurkeztu beharko ditu: eskatzaileak notario aurrean legitimitatutako sinadurarekin eta eskatzailearen NAN edo AIZaren kopia bat.

Jarraitu beharreko urratsak:

1) HAZ-an edo liburutegian egindako izapideak 5 minutuko iraupena du.

2) Mezu elektronikoa jasoko da adierazitako helbidean, informazio hau izango duena: Koordinatuak (edo itsasontzi jokoak), gorde beharko direnak eta B@kQ eman eta aktibatzearen prozesura daraman lotura bat.

3) Sinadura eman eta aktibatzearen prozesua lizenperen web-gunetik osatu behar da (horretarako, aurreko puntuan aipatutako lotura erabiliko da). **Lau pauso eman behar dira:**

•SMS bat jasotzen da, eskaeran adierazitako mugikorrean. Horretan, pasahitz bat egongo da, segurtasuna dela-eta beste pasahitz batekin ordezkatu beharko dena.

Idiazabalgo Udala
(GIPUZKOA)



- Datu pertsonalak egiaztatzen dira, eta B@kQ erabiltzeko terminoak eta baldintzak onartzen dira.
- Lehen aldiz autentifikazio bat egiten da, hodeian sinadura elektronikoko ziurtagiria hodeian eman ahal izateko.
- B@kQ prest egongo da, norbera autentifikatzeko eta erabakitzailerak nahi dituen on line harremanetan sinatzeko.